

FRANKFURTER ALLGEMEINE ZEITUNG

"Askok ez dute beraien familia berriz ikusi"

Irakasle euskaldun bat bere ikasleekin mendebaldeko Saharara, laguntza bidaian

"Errefuxiatu eremuetan izandako bizipenak mundua beste ikuspuntu batetik ikustera eramaten naute" dio Josu Etxaburuk, euskal kostaldeko Ondarru herritik. Badira 21 urte Elorrio institutuan, izen bereko herrian, Euskara eta Literatura eta Teknologiako irakasle dela. 16 urtez bertako zuzendari ere izana da. "Nire ikasleei munduaren beste ikuspuntu bat eskeini nahi nien eta horregatik hasi nintzen "Sahara libre" proiektuan elkarlanean". Orduetik 10 urte pasa dira. Aurretik bere lagunek eman zioten Aljeriara bidaiatzeko motiboa "nire lehenengo bidaian konturatu nintzen bizipen hau nire ikasleekin ere partekatu nahi nuela" dio, liluraz. Beraz, Euskal Herrian dagoen Saharar herriaren ordezkariarekin eta Sahararen askapenerako lanean dabilen Frente Polisarioarekin, talde militar eta politikoarekin, hitz egin zuen. "Erantzun baikorra baino ez genuen jaso gure proiektua berehalakoan hasteko baimenarekin".

Marokok, Espaniarrak erretiratu ondoren 1975ean Mendebaldeko Sahara okupatu zuenean 200.000 Sahararrek Aljeriara alde egin zuten eta bertan Tindouf probintzian ezarri zuten gobernua, exilioan. "Pentsaezina da norbere etxetik alde egitea, guztia atzean utziz. Horregatik, kanpalekuetan daudenen bizimodua hobetu nahiko genuke giza laguntzatik bizi baitira". 43 urtez erreferendum baten zain egon dira beraiena den lur eremua berreskuratzeko. "Familia ugari garai hartako gerrak banatu zituen eta ez dute berriz elkar ikusi". Eskatzen dutena zera da: beraien etxeetara itzuli ahal izatea, beraien senideekin elkartu eta errefuxiatu eremuetako bizi baldintzetatik alde egiteko". Erreferendum hau ez da gauzatu. Josu Etxaburu eta bere ikasleek liburuxka bat argitaratu dute non Sahararen istoriak kontatzen diren. Irakasleak emakume bat aurkezten du "Amainatu Haidar, Sahara mendebaldeko emakume ekintzaile bat da giza eskubideen alde lanean dabilena. Marokon jipoitua izan zen eta behin baino gehiagotan atxilotua".

"Elorrioko udalarekin, laguntza ekonomikoa bideratu duena, Txintxirri ikastola eta Lawjad elkartarekin, dela hainbat urte Aljerian dauden errefuxiatuekin elkarlanean dabilen elkarteak, elkarlanean bideratu dute proiektua" azaltzen du irakasleak, arto. Urtero Elorrio institutuko eta ikastolako 30 ikasle inguruk bisitatzen dituzte kanpalekuak eta bertako

familien etxeetan hartzen dute ostatu. Hegazkin bat alokatzen da eta Loiuko (Bilbo) aireportutik irten eta ordu beteko hegaldiaren ondoren Tindoufeko aireportu militarrean hartzen du lur. Bidaiak Frente Polisarioak baimentzen ditu. "Urte batzuk direla Bilbon izandako bilera batean Frente Polisario eta Euskal Herriko Saharar ordezkariekin bildu eta Amgalako kanpalekuetara bidali gintuzten, bertan laguntza beharrezkoagoa zelako". Kanpalekuak kokatzen diren probintziak Aljerian Tindouf izena du eta bertan kanpaleku ezberdinak daude: Ausred, Smara, Dakhla eta Amgala. Errefuxiatu kanpalekuak hiriburu zaharren izen bera daramate. 3 ikaslek, begirale batekin etxe batean hartzen dute ostatu. Sahararrekin komunikazioa aurrera eramatea ez da zaila euskaldunentzat "Ezin dugu ahaztu mendebaldeko Sahara Espainiar kolonia izan zela eta askok gaztelaniaz egiten dute, elkar ulertzeko modua egiten dugu". Halere, lehenengo bidaiari "erabat erratu" ziren, dio 58 urteko euskaldunak. "Gure asmo on guztiekin joan ginen baina planteamentu okerrarekin. Behar ez dutena Errege Magoen paperean jostaluak eta arropak eramatea da".

Hospitalik ez dago ia eta botikak lortzeko aukerak ere urriak dira. Barazki eta jaki dendak ere gutxi. Amgalan ur eskasia dela eta dutxa bat hartzea ez da ia posible. Familiak dendatan bizi dira, jaima izenekoetan. Sahararrak jatorriz nomadak dira. "Errefuxiatu kanpalekuetan jaimak dira lo eiteko lekuak. Sukaldea eta komunak kanpoan lekutzen dira. Badago, baita ere, jaima handi bat elkarretaratzeetarako eta bertan tea edan edo elkarrizketarako elkartzen dira".

Azken 10 urte hauetan institutuko eta ikastolako ikasleek proiektu berriak ekarri izan dituzte denbora aurrera joan ahala gauzatu direnak."Lehenengo proiektua, gauzatu zena, futbol zelai bat egitea zen kanpalekuetako umeentzat- badira 43 urte bertan bizi direla. Umeak bertan jaio dira, inolako etorkizunik gabe eta beraien aurpegietan irrifartxo bat lortzea genuen helburu". Beste familia batzuentzat ortuak antolatu dituzte, imprimagailu bat eta eskola materiala erosi ere bai eskolak eman ahal izateko. "3 ikastetxe daude kanpalekuetan, haur eskola, lehen hezkuntza eta eskola 10. eskola urte artekoentzat. Baliabide ekonomikoak dituztenak bakarrik dute Aljeriako eskola batera joateko aukera".

Pasaden urtarrilerako aurreikusi zen bidaiari atentatu baten arriskua zegoenaren susmoa zela eta ezin izan zen aurrera eraman. "Nire ikasleak oso nahigabetu ziren baina tristezia sormen bihurtu zuten". Bideoak igo

zituzten You tube eta Instagramera kanpalekuetako baldintza txarrak azaleratu eta diru laguntzak eskatuz.

"Nire Saharako lagun eta beraien familiek behin eta berriz eskatzen digute gure herrira bueltatzen garenean beraien egoeraren berri emateko behingoz erantzun bat egon dadin". "Nire promesa bete dut. Elorrion jende asko ikusten da "Sahara Libre" eta "Lawjad" dioten sudaderak edo kamisetak soinean dituztela. Nire ikasleek eginarazi eta saltzen dituzten jantziak dira kanpalekuetako pobrezia ahaztu ez dadin. Egia esan bueltan etortzen naizenean beti pentsatzen dut askoz gehigo jaso dudala beraiangandik eman dudana baino nahiz eta beraiek ezer ez eduki" dio, hunkituta.

"Haur baten irrifarrea, ama batena, aita batena edo amona batena eta beraien apaltasuna, hori da eskeintzen digutena. Balioak eta printzipioak eskeintzen dizkigute beste inon ikasten ez direnak. Ezer izan ez arren asko irakasten digute".

Jone Del Río Aguirre
Deutsche Schule Bilbao